



UEMA eta HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIAren ARTEKO ELKARLANA SUSTATZEKO HITZARMENA

Donostian, 2008ko maiatzaren 15ean

BILDURIK: Alde batetik, Jon Bollar Intxausti jauna, Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) ordezkaturik, Aulestiko Donibane plazan helbideratua.

Eta bestetik, Paul Bilbao Sarria jauna, Hizkuntz Eskubideen BEHATOKIA ordezkaturik, Iruñeko Marcelo Zelaieta etorbideko 75. zenbakian helbideratuta.

Bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzeko duten gaitasuna eta eskuduntza onartzen dizkiote elkarri eta adierazten dituzte ondorengo:

AURRERAKINAK

Bi erakundeon xede nagusia, besteak beste, hizkuntza-eskubideen babesean eragitea denez, bi erakundeok elkarlanean euskaldunon hizkuntza-eskubideen babesean eraginkorrakoak izatea da proposamen honen helburua. Horretarako, bi erakundeen helburuak elkarrekin gauzatzeko eta uztartzeko egokiak diren ekimenak bultzatu nahi dira.

AKORDIOAK

Lehenena.- UEMAKo udaletan herritarrek hizkuntza-eskubideen inguruko urraketak salatzeke mekanismoak abian jartzea.

- Udaletxe, liburutegi eta kultur etxeetan BEHATOKIko *Euskararen telefonoa* zerbitzua iragartzeko karteltxoak jarri.
- Udaletxeetan herritarren kexak jasotzeko kutxatila jarri, ondoan, BEHATOKIAren berri emango duen informazio-orria eta kexak idazteko inprimakiak (material hori berritzeaz udala arduratuko da).
- Hiru hilean behin, UEMAK jasotako kexak BEHATOKIra bideratuko ditu.
- Horren berri emango du UEMAK tokian tokiko hedabideetan eta udalak hala onartuz gero, bai eta udal bakoitzaren web orrialdean ere.

Bigarrenena.- UEMAK eta BEHATOKIAK UEMAKo herrietako urraketan gaineko salaketa bateratuak egitea.

- Urtean behin, BEHATOKIAK urteko txostenaren aurkezpena egin eta gero, bi erakundeok UEMAKo herrietako salaketen berri emango dute. Halaber, UEMAKo eremuan beltzune izan diren eremuen berri emango dute.

Hirugarrenena.- BEHATOKIAK UEMAKo herrietatik (UEMA bitartekari izan gabe) iristen diren salaketen berri ematea UEMAKi.

- BEHATOKIAK UEMAKo udalerrietako biztanleek zuzenean helarazitako kexen berri helaraziko dio lau-hilabetero UEMAKo zerbitzu teknikoari.
- UEMAKo udalerriren batek kexaren bat jasoz gero, BEHATOKIAK jarraian emango dio horren berri UEMAKo zerbitzu teknikoari.

Laugarrena.- UEMAK bere herrietan bere kabuz ikusten dituen hizkuntza eskubideen urraketen berri ematea BEHATOKIARI.

- UEMAKo udalei euskaraz lan egiteko oztupoak jartzen dizkieten erakunde publikoen salaketa egingo du UEMAK BEHATOKIAN.
- UEMAKo udalerrien eremuaren baitan lanean ari diren beste erakunde publikoen jarraipena egingo du UEMAK urtean behin, eta horren berri emango dio BEHATOKIARI.

Bosgarrena.- BEHATOKIAK hizkuntza-eskubideen urraketen konponbidean egiten dituen lorpenen inguruko informazioa ematea UEMARI.

- BEHATOKIAK egiten dituen kudeaketen ondorioz UEMARENTZAT interesgarriak izan daitezkeen lorpenen berri ematea UEMARI.
- UEMAK lorpen horiek bere herrietan txertatzea.

Seigarrena.- Aldez aurreko lana delako ildoak elkarlanean lantzea.

- UEMAKo udalerrietan erreferentzia handiko eremuren bat zabalduko balute, publikoa zein pribatua, horren berri helaraziko zaio BEHATOKIARI eta bi erakundeok elkarrekin jardungo dute hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurrian har ditzaten eskatzeko.

Zazpigarrena.- Bi erakundeon arteko harremana alde bakoitzetik izendatutako ordezkariak bilduko dituen jarraipen batzorde batek gidatuko du. Batzorde hori urtean behin elkartuko da gutxienez, Behatokiak urteko txostena aurkeztu ostean. Horrez gain, jarraipen-batzordea behar den guztietan bilduko da, alde bietariko batek horrela eskatuta.

Zazpigarrena.- Bi erakundeon arteko hitzarmena publikoki aurkeztuko da.

UEMAREN izenean
Jon Bollar Intxausti

BEHATOKIAREN izenean
Paul Bilbao Sarria